EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## "BAKEA ETA ASKATASUNA SAHARAN" legebiltzar taldeartekoen biltzarra. Eusko Legebiltzarra. Gasteiz, 2004

## Azken Erabakia

2004ko urtarrilaren 23an *Bakea eta Askatasuna Saharan* parlamentuko taldeen arteko konferentzia bildu da Gasteizen. Hain zuzen ere, duela 120 urte, Berlingo konferentzian, Mendebaldeko Saharako eta beste hainbat herritako kolonizazioa bermatu ziren. Era berean, NBEk hamarkada hau Kolonialismoa Deuseztatzeko Nazioarteko Bigarren Hamarkada izendatu du. Testuinguru honetan, konferentzia honek saharar gatazkaren azken gertaerak aztertu ditu, eta, ondorioz, hau adierazi nahi du:

**BERRETSI** egin nahi dugu saharar herriak askatasunaren eta autodeterminazioaren alde duen borrokaren aldeko konpromisoa. Saharar herriak, Nazioarteko Zuzenbidean eta Nazio Batuen eta nazioarteko hainbat erakunderen ebazpenetan ageri denez, bere etorkizuna erabakitzeko ezin kenduzko eskubidea du; izan ere, lurralde hori kolonizazio prozesu baten menpe egon da, eta arazo hori oraindik ere ez da konpondu.

## Conferencia de los Intergrupos Parlamentarios "PAZ Y LIBERTAD EN EL SAHARA" celebrada en el Parlamento Vasco en enero de 2004

## Resolución Final

Reunida en Vitoria-Gasteiz, el 23 de enero de 2004, la Conferencia de los Intergrupos Parlamentarios *Paz y Libertad en el Sáhara* cuando se cumplen 120 años de la conferencia de Berlín que consagró la colonización del Sahara Occidental y de otros muchos pueblos del mundo y en el marco del Segundo Decenio Internacional para la Eliminación del Colonialismo proclamado por la ONU, ha examinado los últimos acontecimientos en relación con el conflicto saharaui y quiere manifestar lo siguiente:

**REITERAR** nuestro compromiso con la causa del Pueblo Saharaui por la libertad y la autodeterminación. El pueblo saharaui, tal y como se reconoce en el derecho internacional y se recoge en innumerables resoluciones de Naciones Unidas así como de otras muchas organizaciones internacionales, tiene un derecho inalienable a decidir libremente su futuro en tanto que su territorio ha sido sometido a un proceso de colonización aún no resuelto.

**ZORIONDU** egin nahi dugu Fronte Polisarioa —saharar herriaren legezko ordezkari bakarra— Baker II Planaren bidez (Mendebaldeko Saharako Herriaren Autodeterminaziorako Bake Plana) irtenbide bidezkoa, baketsua, demokratikoa eta egonkorra lortzearen aldeko konpromisoa hartu duelako. Plan horri esker, Magreb arabiarreko eskualdean bakea eta egonkortasun politikoa lortzeko itxaropen berriak sortu dira, baita herritarrentzat ongizate maila handiagoa lortzeko aukera ere, herritarrak baitira, azken finean, gatazkaren ondorioak jasaten ari direnak.

**FELICITAR** al Frente POLISARIO, único representante legítimo del Pueblo Saharaui, por su compromiso de avanzar hacia una solución justa, pacifica, democrática y estable a través del Plan de Paz para la Libre Determinación del Pueblo del Sáhara Occidental, conocido como Plan Baker II, lo que abre nuevas esperanzas de paz y estabilidad política en la región del Magreb árabe y de mayor bienestar para una población que sufre injustamente las consecuencias del conflicto.

**ESKAERA** bat egin nahi diegu Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluari, eta bereziki erakunde horren idazkari nagusi Kofi Annani, bai eta Mendebaldeko Sahararako mandatari berezi James Bakerri, Europako Batasunari eta bertako gobernuei ere: eskuan dituzten baliabide demokratiko guztiak baliatuz, Marokoko Gobernuari behar den adina presio egin diezaiotela Mendebaldeko Saharako Herriaren Autodeterminaziorako Bake Plana onar dezan, Fronte Polisarioak egin duen bezala, gatazkaren irtenbide baketsua eta behin betikoa lortzeko. Plan horren oinarria saharar herriak bere autodeterminaziorako eskubidea erabiltzea da, erreferendum askea, demokratikoa eta gardena deitu eta eginez.

**SOLICITAR** del Consejo de Seguridad de la Organización de las Naciones Unidas, en particular, de su Secretario General, Kofi Annan, y de su Enviado Personal para el Sáhara Occidental, James Baker, de la Unión Europea y de sus gobiernos que, utilizando todos los recursos democráticos a su alcance, realicen las presiones necesarias sobre el Gobierno de Marruecos para que acepte, al igual que el F.POLISARIO, el Plan de Paz para la Libre Determinación del Pueblo del Sáhara Occidental como vía para llegar a una solución pacífica y definitiva del conflicto, sobre la base del ejercicio de derecho del Pueblo Saharaui a su autodeterminación mediante la celebración de un referéndum libre, democrático y transparente

Espainiako Gobernuari **ESKATZEN** diogu —Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesuan erantzukizun historikoak eta juridikoak dituenez gero, bai eta nazioarteko harremanetan indar handia ere— lan eraginkorragoa egin dezala, NBEren eta EBren baitan, saharar gatazkarentzat irtenbide azkarra, bidezkoa eta iraunkorra lortzeko.

**SOLICITAR** del Gobierno Español, dadas sus responsabilidades históricas y jurídicas en el proceso de descolonización del Sáhara Occidental, así como su papel relevante en el contexto de las relaciones internacionales, que asuma una postura más activa en el marco de la ONU y la UE para conseguir una solución rápida, justa y definitiva del conflicto Saharaui.

**SALATU** nahi dugu Marokok hartutako lurraldeetan saharar biztanleen giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak behin eta berriz urratzen direla. Saharar preso politiko eta gerra preso guztiak berehala askatzeko eskatzen dugu, baita gaur egun *desagertuta* dauden pertsonak non dauden argitzeko ere.

**DENUNCIAR** la sistemática violación de los derechos humanos y libertades fundamentales que sufre la población civil saharaui en los territorios ocupados por Marruecos, exigiendo la inmediata excarcelación de todos los presos políticos y prisioneros de guerra saharauis y el esclarecimiento del destino de todas las personas actualmente *desaparecidas*.

**ZORIONDU** egin nahi ditugu Marokok askatu berri dituen preso politikoak, eta aintzakotzat hartu nahi dugu Mendebaldeko Saharako herritarren giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen alde egindako borrokaren balioa. Horiekin batera, borroka berean mundu guztitik parte hartu duten pertsonen eta erakundeen ahalegina ere aintzat hartu nahi dugu, horien guztien elkartasunari eta adoreari esker izan baita posible demokraziaren garaipen txiki hau.

**ESKAERA** hau egiten diegu errefuxiatuen bizi baldintzak babesten diharduten nazioarteko erakundeei (ACNUR, PAM): beharrezko ahalegin guztiak berehala egin ditzatela, aitzakiarik gabe, Tindufeko saharar kanpamenduan bizi diren errefuxiatu guztien bizi baldintza duinak bermatzeko. Horren haritik, ECHO laguntza humanitariorako europar bulegoari berariazko deia egin nahi diogu, saharar herriaren aldeko lankidetza programei berriro ekin diezaien eta programa horiek etengabe areagotu ditzan.

Era berean, eta berriz ere, Europako gobernuei, eta bereziki Espainiako Gobernuari eta autonomia-erkidegoetakoei, funts bereziak bideratzeko eskatzen diegu, errefuxiatu sahararrak jasaten ari diren elikagai krisi izugarriari aurre egiteko. Erakunde batzuek laguntzak ematen dizkiote aldiro-aldiro, baina orain eskatzen ditugun funtsak ez dira diru-laguntza horietatik atera behar.

**ESKAERA** egiten diegu nazioarteko erakunde eskudunei, NBEko Segurtasun Kontseiluari eta Europako estatuetako gobernuei ezen eska deizaietela Marokoko Gobernuari eta tartean egon daitezkeen enpresei Saharako Mendebaldeko baliabide naturalak bidegabeki miatzeari eta ustiatzeari uzteko. Izan ere, saharar herria da baliabide horien jabe bakarra, eta hari dagokio baliabide horien kontrola.

**FELICITAR** a los presos políticos recientemente excarcelados por Marruecos y reconocer el valor de su lucha por los derechos humanos y libertades fundamentales en el Sáhara Occidental y de las organizaciones y personas de todo el mundo que con su solidaridad y compromiso han hecho posible esta pequeña victoria.

**EXIGIR** de los organismos internacionales encargados de velar por las condiciones de vida de la población refugiada, ACNUR, PAM, que desplieguen de forma inmediata y sin excusas los esfuerzos necesarios para asegurar unas condiciones de vida dignas a todas y cada una de la personas que viven refugiadas en los campamentos saharauis de Tinduf. En este marco queremos hacer un llamamiento expreso a la oficina europea de ayuda humanitaria, ECHO, para que reanude y progresivamente vaya incrementando los programas de cooperación con el Pueblo Saharaui.

Igualmente, insistimos ante los distintos gobiernos europeos, y en particular ante el gobierno español y los gobiernos autonómicos, para que liberen fondos especiales para solventar la terrible crisis alimentaria que afecta a la población refugiada saharaui. Estos fondos no deben detraerse de la ayuda regular que las diferentes instituciones vienen proporcionando a través de diversos programas de cooperación.

**SOLICITAR** de los organismos internacionales competentes, del Consejo de Seguridad de la ONU y de los gobiernos de los estados europeos exijan al Gobierno de Marruecos y a las empresas eventualmente implicadas que cese la exploración y explotación ilegítima de los recursos naturales del Sáhara Occidental en tanto estos no estén controlados bajo control de su único dueño, el Pueblo Saharaui.